

Genozidioaren ikuspegiaren abiapuntua Euskal Herriko historia aztertzeko eta interpretatzeko.

Dr. Xabier Irujo
University of Nevada, Reno

Resumen

La perspectiva del genocidio para analizar e interpretar la historia de Euskal Herria.

La práctica y razón de Estado que han implementado los Estados francés y español en el plano político, económico, social y cultura en Euskal Herria se adecúa y acomoda a la descripción que atribuye al concepto de genocidio Raphael Lemkin en 1944, como autor que introduce el concepto en el debate político y académico. El genocidio se refiere a un patrón de conducta que por la vía de la imposición destruye por la fuerza la personalidad y el universo cultural de un determinado pueblo o colectivo. Desde 1789 se puede seguir su práctica referido al pueblo vasco. El atlas de las lenguas de UNESCO expone que en Europa 114 lenguas se hallan en trance de desaparición. En el estado español 5 lenguas y 26 lenguas, incluido el euskara, en la República francesa, están en proceso de desaparición.

Palabras claves: Genocidio, genocidio cultural, abolición foral, lengua vasca, represión, conculcación de derechos humanos.

Laburpena

Espainiar eta frantziar estatuek Euskal Herriarekiko azken bi mendeetan arlo politikoan, ekonomikoan, sozialean eta kulturalean abiarazi duten politika ongi egokitzen da Raphael Lemkinen 1944an emandako genozidioaren deskribapenarekin: boterean dagoen agentearen gizataldeko patroia nazionalaren inposizioaren indarrez herri baten kultura eta ezaugarri nazionalen unibertso propioaren suntsiketa da genozidioa. 1789tik gaur egun arte praktika honen saldoa latza dugu. UNESCOko hizkuntzen atlasak Europan 114 hizkuntza desagertzeko arriskuan daudela erakusten du: ofizialak ez diren hizkuntza guztiak alegia. Gaur egun, bost hizkuntza daude estatu espainolean desagertzeko arriskuan eta, euskara barne, 26 hizkuntza frantziar errepublikan.

Giltza hitzak: Genozidio, genozidio kulturala, foruen galera, euskara, errepresioa, giza eskubideen urraketa.

Abstract

The perspective of genocide for analysing and interpreting the history of the Basque Country

The practice and reason of state implemented by the French and Spanish states at the political, economic, social and cultural level in the Basque Country fits the description of the concept of genocide made by Raphael Lemkin in 1944, an author who introduced the concept into the political and academic debate. Genocide refers to a pattern of conduct that through imposition destroys by force the personality and cultural universe of a particular people or group. Since 1789 it is possible to follow its practice with respect to the Basque people. According to the UNESCO atlas of languages, in Europe there are 114 languages in danger of disappearing. In the Spanish state there are 5 languages; and in the French republic there are 26 languages, including Euskera, that are in the process of disappearing.

Key words: Genocide, Cultural genocide, Foral abolition, Basque language, Repression, Violation of human rights.

Hartua-recvdo: 15 -IX-2015- Onartua-acceptado: 30-XI-2015

1811 eta 1924 bitarte Estatu Batuetako gobernuaren Mississippi ibaiaren mendebaldeko indioen inguruko politika belizista izan zen neurri handi batean. Zenbait ipar amerikarrentzat politika hau ez zen bakarrik krudela baizik eta garestia. 1845 eta 1885 bitarte, Estatu Batuetako gobernuak 20 milioi dolar inbertitu zituen urte oro indioen aurkako gerrateetan eta indiar erreserbak mantentzen. 1872tik 1882ra gerrateetan eta gerrak gauzaturiko beste hainbat auzietan 273 milioi dolar gastatu zituen gobernuak, hots, 27 milioi dolar urteko. Methodist Episcopal Church Missionary Society elkartearen arabera, bakeak inbertsio urria eskatzen zuen eta emaitza joriak ematen zituen. Aldiz, gerrak inbertsio handia eskatuz, emaitza urriak eskaintzen zituen. Zenbait eliza kristauen eta misiolari elkarteen bultza eta sorospenarekin, Ulysses S. Grant presidenteak jarri zuen lehen aldiz bake politika martxan 1869 eta 1877 bitarte. Hortik aurrera, gero eta interes handiagoa erakutsi zuten bake politikarengan indioen auzietarako komisarioek eta barne ministroek. Izan ere, hezkuntza sistema berriari jarraiki eta misiolarien laguntzaz, bake politikak 500.000 dolarrera jaitsi zuen gobernuak indioen aferetan egin beharreko urte oroko inbertsioa. %98ko aurrezkoa. Misiolarien hitzetan, “zergatik hainbeste gerrarako eta hain gutxi bakerako? Ez al zuen gobernuak milioika dolar aurreztuko indiarrek balen ordeztu berria jaso izan bazuten? Indiar bat hiltzeko gobernuak milioi bat dolarreko inbertsioa behar du; Elizak ordea indioa salba dezake mila dolarrekin¹”.

Ildo honetan, Richard C. Pratt kapitainak indioen hezkuntzarako Carlisle eskola sortu zuen 1879an. Eskola hau, lehen aldiz erreserbetatik kanpo kokatuta eta barnetegi-erregimenekoa, indioen asimilazioa zuen helburu. Pratten arabera, “atsotitza onartuko dugu. Ez dago indio onik indio hilda baino. Hortaz, ahalegin gaitzen nekez eta hezkuntzaren bidez bere barruan dagoen indioa hiltzen, eta gizona salbatzen²”. Merkeagoa zen, bai eta nabarmenki eraginkorragoa.

Hori da izatez genozidioa.



Genozidioaren irudi ikonikoa. “Ahalegin gaitzen nekez eta hezkuntzaren bidez bere barruan dagoen indioa hiltzen, eta gizona salbatzen” lelopean, Tom Torlino Navajo herritarra Boarding schoolera joan baino lehen eta ostera. Ca. 1882.

Genozidioa ez da jende askoren hilketa, ez eta nazio jakin baten herritarren hilketa. Hori baina gehiago da. Genozidioa herri oso baten suntsipena da, nazio baten asimilazioa. Raphael Lemkin politologo poloniarrek eratu zuen genozidio hitza lehen aldiz 1944an argitaratu emandako *Axis Rule in Occupied Europe* liburuan. Bere hitzetan, gizatalde bat errausteko asmoz herri baten bizimoduaren funtsezko oinarriak suntsitzeko ekintza multzo batez osatutako plan koordinatua da genozidioa. Egitasmo genozida honen helburuak herriaren instituzio politikoaren eta gizartearen, kulturaren, hizkuntzaren, sentimendu nazionalaren, erlijioaren, eta talde nazionalaren existentzia ekonomikoaren

¹ *The Gospel in All Lands*. An Illustrated Monthly Missionary Journal, Methodist Episcopal Church Missionary Society, 1885, vol. 11, pp. 305-307.

² “We accept the watch-word. There is no good Indian but a dead Indian. Let us by education and patient effort kill the Indian in him, and save the man.” *Seventeenth Annual Report of the Board of Indian Commissioners to the Secretary of the Interior*, Government Printing Office, Washington, 1886, p. 25.

birrinketa da, bai eta herri horren hiritarren segurtasun pertsonalaren, askatasunaren, osasunaren, duintasunaren eta, giza talde horren gizabanakoen bizitzaren suntsipena³.

Genozidio kanpaina batek bi fase ditu. Lehenengoa, zapal dutako talde nazionalaren patroia nazionala suntsitzea dugu; bigarrena, talde nazional zapaltzailearen patroia nazionala inposatzea. Herri baten “patroi nazionala” gizatalde horren bizimodua edo kultura da, alegia, nazio jakin horren ohiturak, hizkuntza, instituzio politikoak eta, erakunde eta egitura sozioekonomikoak.

Iraganean, “desnazionalizazio” hitza erabili zen herri jakin baten patroia nazionalaren suntsiketara kanpaina adierazteko. Izan ere, Frantziar errepublikako gobernu iraultzaileak Vendéen 1793 eta 1796 bitarte abiarazi zuen birrintze kanpaina aztertuz, Gracchus Babeuf (1760-97) ideologo eta politikariak “despopulazio edo suntsipen egitasmo orokorra⁴”, “despopulazio⁵” eta “populizidio⁶” espresioak erabili zituen kanpaina hau izendatzeko *Du Système de dépopulation, ou la vie et les crimes de Carrier* 1794an idatzi eta argitaratu eman zuen liburuan⁷. Hortaz, nahiz eta Lemkinen “genozidio” hitza 1944an asmatu “genos” greziar erroa (“gizataldea” edo “nazioa”) eta “-cide” latinezko atzizkia (“hil” edo “birrindu”) uztartuz, tradizio zaharreko kontzeptu gizatiarra da.

Genozidio kanpaina bat hiru elementuz osaturiko errealitate historikoa da, alegia, biktimak, agentea eta ekintza bera.

Gizataldea edo nazioa dugu biktimak multzoa. Lemkinen hitzetan gizataldearen “patroi nazional”-ren birrinketa da kanpaina genozidaren helburu nagusia, hots, nazioaren kulturaren suntsipena eta agente genozidaren gizataldearen patroia nazionalaren edo kulturaren inposaketa. Biktimen gizataldearen ezaugarriak arlo kulturalen, politikoan, ekonomikoan, sozialean edota etnikoan nabarmenak dira eta ekintza genozida gauzatu baino lehen identifikaturiko edo pre-identifikaturiko taldea da. Sozialki diskriminatua, prejuizio sozialak lege bilakatzen ditu agenteak, biktimen taldeko gizabanakoak botere politikotik aldentuz eta nazioaren ezaugarri kulturalak legez kanpo utziz, hala nola, biktimen taldeko hizkuntza nazionalaren erabilera edo erlijioaren praktika. Genozidio kanpainaren une gorenean, biktimen taldeko gizabanakoak agenteak inposatutako legeari jarraiki mobilizatu, kontzentratu edo espetxeratu eta, erailten dira. Biktimen gizataldea gutxitzea eta asimilatzea du agenteak helburu, ondorioz, genozidio kanpaina luze baten ostean herrialde jakin baten baitan gutxiengo kultural, linguistikoa, politiko edota etnikoa osatzen dute biktimek. Azkenik, genozidioa gisa talde nazionalaren aurka zuzentzen da eta, egitasmo genozidaren ekintza partikularrak gizabanakoen aurka zuzendu egiten badira ere, ekintza hauek ez dira gizabanakoengan ezartzen azken hauek “egin dutenarengatik”, baizik eta gizatalde horren kide “izateagatik⁸”.

Gizakien ezberdintasunaren printzipioan oinarritutako ideologiak eta programak osatu dituzte historikoki agenteek, ondorioz, agente genozidaren ezaugarri nagusia giza eskubideekiko agertzen duen mesprezua da. Agenteak euren taldeko gizakien nagusitasuna ezartzea du helburu bai kulturalki, politikoki, etnikoki edota erlijio arloan “gizazpiko”, “behe-mailako”, “akastun” edota “erraturako” gizakien gainetik. Prejuizioetan oinarritutako ezberdintasun hau lege bilakatu ondoren, bi errealitate juridiko, politiko eta kultural ezartzen du agenteak gizarte bitan banatuz (“gureak” eta “besteak”). Nagusitasuna bere egirik, agenteak beharrezko diskurtsoari eusten dio, alegia, bai kulturalki, politikoki, etnikoki edota erlijio arloan nagusi izanik eta egia bakarraren jabe izanik, biktimak suntsitzeko, hezteko, konbertitzeko edo zibilizatzeko “beharra” du, beraz, genozidio kanpaina “bona fides” edo “fedez” antolatzen du, hots, herrialdearen, zibilizazioaren edota Jaungoikoaren onerako gauzaturiko ekintza da agentearen diskurtsoaren arabera. Genozidio kanpaina bat martxan jartzeko behar den botere maila eta diru iturria kontutan izanik, agente genozidak estatu ezberdinetako gobernuak izan dira kasu gehienetan.

Agente genozidaren eta biktimen gizataldeen arteko mugak ez dira beti garbiak, eta maiz prejuizio edo printzipio pseudo-zientifikoetan oinarrituta daude. Kasu gehienetan biktimen gizataldeko gizabanakoak ditugu agentearekin kolaboratzen eta agentearen gizataldeko lagunak biktimen artean. Bestetik, genozidio kanpaina urteetan edo mendeetan zehar luzatzen denean, gero eta zailagoa da bai sozialki zein kulturalki bi taldeen arteko gizabanakoen artean bereizketak egitea.

Ekintza genozidari dagokionez, herri bat desagerraraztea ez da erraza ez eta sinplea, hortaz, genozidio, populizidio edo desnazionalizazio prozesuak errealitate historiko, politiko, kultural eta sozioekonomiko konplexuak dira, ekintza multzo anitz batez osatutako eta sasoi luze batez zabaltzen diren plan koordinatuak alegia. Genozidio kanpaina baten testuinguru “sasoi luze bat” urteetako bai eta mendeetako kanpaina esan nahi du. Ekintza genozidaren helburu nagusia “orden berri” bat ezartzea da, bai kulturalki, politikoki, etnikoki edota erlijio arloan aurrekoa baina “zuzenagoa”, “biribilagoa”, “garbiagoa”, “hobe” edo “Jaungoikotik hurbilagoa” dena.

³ Irujo, Xabier, *Genocidio en Euskal Herria*, Nabarralde, Iruñea, 2015, pp. 16-22.

⁴ Plan de d’extermination et de dépeuplement général.

⁵ *Dépopulation*.

⁶ *Populicide*.

⁷ Babeuf, Gracchus, *Du Système de dépopulation, ou la vie et les crimes de Carrier, son procès et celui du Comité révolutionnaire de Nantes*, Imprimerie de Franklin, Paris, 1794. Maria Teresa González Cortés-en eskutik, badago lan honen edizio bat gazteleraz: Babeuf, Gracchus, *El sistema de despoblación: Genocidio y Revolución francesa*, Ediciones de la Torre, Madrid, 2008.

⁸ Lemkin, Raphael, *Axis Rule in Occupied Europe: Laws of Occupation, Analysis of Government, Proposals for Redress*, Carnegie Endowment for International Peace, Washington, D.C., 1944, p. 79.

Lemkinen arabera zortzi dira herri bat birrintzeko estrategiak eta maiz estrategia guzti hauek edo gehienak batera martxan jartzen dira genozidio kanpaina baten zehar⁹. Lehenengoa, nabariena, gizatalde hori osatzen duten lagun guztiak edo parte bat hiltzea, espetxeratzea edo erbesteratzea da. Genozidio fisikoa da hau. Badira baina gizatalde bat suntsitzeko beste modu asko, besteak beste, gizatalde hori osatzen duten gizonezkoak eta emakumezkoak aldentuz edota jaiotzak moteldu edo eragozten duten beste ekintza batzuk abiaraziz, gizatalde horren hazkundera galarazi edo eragotzi. Arruntak dira kasu hauetan haurren bahiketak, haur hauek biktimen familietatik hartuz agentearen gizataldeko familietara ekarriz. Genozidio biologikoa du estrategia honek izena. Gizatalde bat suntsitu daiteke gizatalde hori osatzen duten gizabanakoen lokarri kulturalak birrinduz, hala nola, hizkuntza, ohiturak, janzkera, musika eta herri horren identitate kolektiboa edo “patroi nazionala” osatzen duten beste hainbeste ezaugarri kulturalak zapalduz. Genozidio kulturala da hau. Herri baten kultura suntsituz eta agentearen balore kulturalak ezarriz herri hori desagertuko da, alegia, berezko “patroi nazionala” birrinduz agentearen gizataldeko identitate kolektiboa egingo du bere. Biktimen gizataldea ordezkatzen duten instituzio politikoak txikitzea eta alderdiak, sindikatuak edota bestelako erakunde politikoak legez kanpo jartzea dira genozidio politikoaren usantza nagusiak. Gizartea arautzen duten norma juridiko edota ohiturak birrintzea da genozidio soziala. Oso eraginkorrak gauzatu dira arlo honetan herri bat desagertarazteko estrategiak, hala nola, bertako lege zibilak indargabetuz, kode zibil berriak inposatu edo justizia gorteak agentearen kontrolpean eta zerbitzura jartzea. Lemkinen hitzetan, nazio baten garapenarentzat funtsezkoa den gizarte egitura aldatuz espiritu nazionalaren baliabideak ahuldu egiten dira¹⁰. Normalean gizatalde baten “intelligentsia” edo gizarte horren kultura, politika, ekonomia, erlijio edo arte ederretako pertsonalitate publikoak dira genozidio kanpainaren lehen biktimak eta honek “elitizidio” izena du. Biktimen gizataldeko gizabanakoen isunen, debekuen edota euren ondasunen bahikuntzen bitartez bizi maila jaitea eta, ondorioz, eguneroko biziraupen fisikoa zailduz gizabanako hauen kultur arloan izan dezaketen ahalmenak murriztea da genozidio ekonomikoaren helburu nagusia. Genozidio erlijiosoak herri jakin baten erlijioaren praktika murriztea edo debekatzea du helburu, bai eta agentearen erlijioa edota kredoaren ezarpena (bai eta noski ateismoa ezartzea). Azkenik, genozidio morala aipatzen du Lemkinen, alegia, herri baten “erresistentzia espiritual” edo “energia mentala” suntsitu norbanako interesak eta berehalako behar materialak suspertuz (“ogia eta zirkoa”).

Bistan da estrategia hauek euskal herriak pairatu dituela, nagusiki 1789tik aurrera iraultza liberalen itzalpean estatu frantsesa eta espainolaren osaketa prozesuen eskutik. Izan ere, euskal genozidio kanpaina aipatu zuen lehena Charles F. Henningsen izan zen 1838an idatzitako liburuan Zumalakarregiren ondoan hamabi hilabeteko kanpaina borrokatu ondoren¹¹. Lehen karlistada eta Parisko gobernu iraultzaileak Vendéen 1793 eta 1796 bitarte eragindako “desnazionalizazio” kanpaina alderatu zituen egileak bere kronikan. Henningsenen arabera, Madrilgo gobernu liberalak ezin izango zituen euskal estatuak zapaldu “gizonezko guztien hilketa ez bazen garatzen, bai eta familia osoen mobilizazioa bortxatzen, landak erretzen, eta herri guztiak suntsitzen¹²”. Hala ere, gehitu zuen Henningsenek, gaitz hori guztia eragiteko Euskal Herria bezalako nazio batean, non 1808tik aurrera herritarrek etengabeko gerra-egoera pairatu zuten, “Xerxesen arotik munduak ezagutu duen armarik handiena eskatuko zuten¹³”.

Henningsen ez zen oker. Frantziako eta Espainiako estaturen sortzea XIX mendeko iraultza liberalaren testuinguruan prozesu historiko konplexua izan zen eta estatu horietan integratuta zeuden nazioen arlo politiko, sozial, ekonomiko eta kulturaletan larri eragin zuen. Zentralismo politikoari eta homogeneizazio kulturalari eutsiz, estatu berrien eraikuntza kultura bat, hizkuntza bat eta erlijio bakar baten bidetik bideratu zen gehienetan. Europako estaturen egituratze politikoaren prozesu bortitza eta, orokorrean, mendebaldeko estatu-nazioen osaketa, nekez saihestu zitzakeen politika genozidak batasun politiko eta kulturalaren ideietan oinarritu baitziren. Bertrand de Barère-n hitzetan, gobernu berriek “errotik urratu behar zituzten hutsegite instrumentuak”, alegia, bi mendeetako politika monopolistikoaren ondoren “gutxituak” deitzen ditugun hizkuntza eta kultura nazionalak¹⁴. Honek guztiak genozidio kanpaina da Raphael Lemkinen idatzien letra eta espirituaren arabera.

Izan ere, 1838 baino lehen, 1789an araka ditzakegu euskal herrietan genozidio kanpainaren lehen urratsak. Parisko asanbleak 1789an foru sistema indargabetzean erreakzio bortitzak sortu zituen Nafarroako erresumako, Lapurdiko eta Zuberoako herritarrengan bai eta herri hauen ordezkarri politikoengan. 1789ko urtarrila eta maiatza bitarte, aipatutako

⁹ Irujo, Xabier, *Genocidio en Euskal Herria*, Nabarralde, Iruñea, 2015, pp. 27-30.

¹⁰ Lemkin, Raphael, *Axis Rule in Occupied Europe: Laws of Occupation, Analysis of Government, Proposals for Redress*, Carnegie Endowment for International Peace, Washington, D.C., 1944, p. 83.

¹¹ Henningsen, Charles F., *The Most Striking Events of a Twelvemonth's Campaign with Zumalacarregui in Navarre and the Basque Provinces*, London, John Murray, 1838.

¹² Henningsen, Charles F., *Doce meses de campaña con Zumalacarregi durante la guerra en Navarra y Provincias Vascongadas / The Most Striking Events of a Twelvemonth's Campaign with Zumalacarregui in Navarre and the Basque Provinces*, Zumalakarregi Museoa, Ormaiztegui, 2015, pp. 47-48.


¹³ Ibid.

¹⁴ *Parmi les idiomes anciens, welches, gascons, celtiques, wisigoths, phocéens ou orientaux, qui forment quelques nuances dans les communications des divers citoyens et des pays formant le territoire de la République, nous avons observé (et les rapports des représentants se réunissent sur ce point avec ceux des divers agents envoyés dans les départements) que l'idiome appelé bas-breton, l'idiome basque, les langues allemande et italienne ont perpétué le règne du fanatisme et de la superstition, assuré la domination des prêtres, des nobles et des praticiens, empêché la révolution de pénétrer dans neuf départements importants, et peuvent favoriser les ennemis de la France. Gazette Nationale ou Le Moniteur Universel, No. 129, nonidi, 9 pluviôse, l'an 2^e (Mardi 28 janvier 1794, vieux style), asteartea, urtarrilak 28, 1794, 3^a serie, vol. 6, pp. 5-8. Ikusi ere, *Recueil de lois et règlements concernant l'instruction publique, depuis l'Edit de Henri IV en 1598 jusqu'à ce jour*, Brunot-Labbe, Paris, 1814, vol. 1, pp. 22-26.*

hiru euskal estatuek euren deserosotasuna adierazi zuten hilabete hauetan osatutako *Cahiers de doléances* edo gaitzespen txostenetan. Euskal herritarrek argi azaldu zuten euren legezko ordezkari politikoaren eskutik ez zutela beren sistema politiko propioa eta beren instituzio bereziak aldatzeko gogorik, asmorik eta beharrik. Adierazi zuten bezala, hiru estatuen subiranotasuna ordezkatzeko zuten batzarren eskutik eta estatu bakoitza legez ordezkatzeko zuten delegatuen eta erakunde politikoaren bitartez alda zitekeen herrialde hauen egoera politikoa. Nafarroako erresumako gortek *Tableau du Royaume de Navarre* liburua argitaratu zuten 1789an¹⁵. Bertan Nafarroako herriaren ordezkariak adierazi zuten ez zutela konstituzio baten beharrik, alegia, nafarren konstituzioa Nafarroako forua zen.

1789 eta 1876 bitarte euskal estatuen xurgapen eta integrazio prozesu politikoak euskal herrien legediaren, instituzioen, errealtate juridikoaren eta, azkenik, askatasun politikoaren galera ekarri zuen baina, halaber, beren egoera sozioekonomiko propioaren hondamendia zein patroi kulturalaren birrinketa, foruak ohituraren oinarritutako kodeak baitziren, ohiturazko zuzenbidea, hau da, mendeetan zehar gizatalde nazionalako kideek partekatzen zuten azturaz elikatutako legediak. Foruen indargabetzearekin aztura ere indargabetu zen, eta euskal gizarteak desegituraketa prozesu latza jasan behar izan zuen XIX mendean zehar, iraultza industrialak arras areagotuko zuen prozesu historiko bortitza hain zuzen. Bigarren urratsa, sistema konstituzionalaren inposaketa dugu, Napoleonen kodeen tradizioari jarraiki, arau sozial, ekonomiko, politiko eta kultural sare konplexu berri baten ezartzea kode berrien eskutik.

Azpimarratu behar herritarren gogoaren edota nahiaren kontra eta maiz dekretuen edo aginteen bitartez, alegia, sistema konstituzionalatik at eta legez kanpo, ezarri zirela ipar eta hego Euskal Herrian 1789 eta 1881 bitarteko hainbat lege. Horrela gertatu zen 1789an bertan, Parisko biltzar konstituziogile nazionalak abuztuaren 4ko gauean "sistema feudala" indargabetu zuenean. Lemkinen genozidio politikoaren eta sozialaren definizioari jarraiki, sistema judizial zaharra ezeztatutako zuen ere 1789ko azaroan biltzar konstituziogileak. Parisko biltzarrak ez zuen Lapurdin, Nafarroan eta Zuberoan subiranotasunik eta euskal erakundeen hautatutako ordezkariak garbi utzi zuten bezala ez zuten euren sistema politikoaren aldaketarik nahi. Horrelaxe indartu zen 1791eko irailaren 3an lehen frantziar konstituzioa, Parisko biltzar konstituziogile nazionalaren eskutik¹⁶.



Derrigorrezko hezkuntza sistema publikoarekin batera, 1804ko kode zibil napoleonikoa dugu genozidio kanpainaren ardatz nagusienetarikoa,

¹⁵ *Tableau de la Constitution du Royaume de Navarre et de ses rapports avec la France. Imprimé par ordre des États Généraux de Navarre*, Desaint, Paris, 1789.


¹⁶ *Gazette Nationale ou Le Moniteur Universel*, No. 259, vendredi, 16 septembre 1791, l'an 3^{ème}, ostirala, irailak 16, 1791, 1^a seriea, vol. 9, suplementua, pp. 1-13. Ikusi ere, Rabaut, Jean-Paul, *Précès historique de la révolution française...*, Onfroy, Paris, 1792, pp. 8-82.

euskal herrietako gizarte estruktura deseginik, agentearena ezarri baitzuen.

Indarrez eta legez kanpo ezarritako sistema berriak aurreko errealitate juridiko, politiko, kultural, ekonomiko eta ondorioz, soziala ere guztiz eraldatu zuen. 1791eko konstituzioak figura juridiko berriak ezarri zituen euskal herrietan, hala nola estatuaren batasunaren eta zatiezintasuneko printzipio politikoak. Lurraldetasunari dagokionez, 1789ko legeari jarraiki, 1790eko martxoaren 4an eratu zen *département des Basses-Pyrénées*. Ondorioz, euskal estatuak desagertu ziren eta nortasun juridikoa eta politikoa galduz, administrazio berri baten parte bat izatera pasa ziren. Paristik administratuko ziren lur sail publikoak egun batetik bestera estatuaren eskuetan jarri zituen lege berriak. Azzimarratu beharra dago aintzinako lurraldeen nortasun juridiko, politiko, ekonomiko eta historikoa ere birrintzeko ahalegina egin zutela legegileek. Ildo honetan, bertako toponimia ezabatu zen frantziar mapa politiko berritik eta ez dago Lapurdi, Nafarroa edota Zuberora ofizialki deitzen den lurralderik 1790tik hona errepublikako izendegi ofizialean.

Erakunde politikoak ezeztatu zituen konstituzioak eta erakunde berriak osatu bai eta eskubide eta eginbehar politiko berriak ezarri, hala nola, soldaduska. 1804tik hasita kode berriak ezarriko ditu Napoleonek, 1804ko kode zibilak arras birrinduko zuen euskal estatuen estruktura soziala eta euskal gizartearen mendeetako erakundeak¹⁷. Kode zibilaren inguru adierazitakoa indarrean jarri zituen gainerako lau kode napoleonikoekiko balio du. Kode bakoitzaren helmuga eremu juridiko jakin bat kodifikatuz eremu guztietan legea eta administrazioa zentralizatzea zen, hizkuntza barne, beraz, lau kode horiek, 1806ko prozedura zibileko kodea¹⁸, 1808ko prozedura kriminaleko kodea¹⁹, 1807ko komertzio kodea²⁰ eta 1810eko kode penala²¹, hizkuntza ofizialean indartu ziren soilik erakunde eta betebeharrak eta eskubide politiko eta sozial berriak indartuz.

Hiritartasunari dagokionez, foruen ezeztapenarekin batera, lapurtar, napar eta zuberotar herritartasuna indargabetu zen. Frantsesak izango ziren legez aurrerantzean euskal herritarrak eta, berdintasunaren printzipio politikoaren arabera, uniformetasun kulturala ezarri zen. Henri Grégoiren inkestaren arabera 1794an errepublikako biztanleriaren %11 bakarrik *langue d'oil*-ez hitz egiten zuenean, hizkuntza erromantze honi “frantses hizkuntza” titulu politiko eman zitzaion eta estatuaren hizkuntza ofiziala bilakatu zuen 1793 eta 1794 bitarte konbentzio frantziarrak²².



“Si el famoso árbol de Gernika da este fruto, procuremos que no vuelva a rebrotar”. “Fueros y petróleo” lelopean, alderdi liberaleko irudi honek garbi erakusten du gobernu zentralaren euskal erakunde politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalakiko jarrera.

¹⁷ *Code civil des Français. Édition originale et seule officielle*, Imprimerie de la République, Paris, 1804.

¹⁸ *Code de procédure civile. Édition originale et seule officielle*, Imprimerie impériale, Paris, 1806.

¹⁹ *Code d'instruction criminelle. Bulletin des lois*, No. 214 bis, novembre et décembre 1808, Paris, pp. 1-106.

²⁰ *Code de commerce. Édition originale et seule officielle*, Imprimerie impériale, Paris, 1807.

²¹ *Code pénal. Édition originale et seule officielle*, Imprimerie impériale, Paris, 1810.

²² *Rapport de 16 prairial an 2 sur la nécessité et les moyens d'anéantir les patois et d'universaliser l'usage de la langue française*, *Gazette Nationale ou Le Moniteur Universel*, No. 258, octidi, 18 prairial, l'an 2^e (vendredi 6 juin 1794, vieux style), ostirala, ekainak 6, 1794, pp. 3-8.

Noski, neurri guzti hauen kontrako jarrera eragin zuen euskal herritarrengan eta genozidio fisikoko ekintzak berehalaxe gertatu ziren. 1794ko urtarrilaren 27an Barèrek konbentzio nazionalen emandako hitzaldian adierazi zuen euskaldunak fanatiko talde bat zela eta, errepublikako beste hainbeste talde nazional bezala, euren hizkuntza eta kultura desagerraraztea beharrezkoa zela (*le fanatisme parle le basque*)²³. Bi hilabete eskas geroago, jakiak, bizigaiak eta neguko arropa eramateko debekuarekin, 4.000 bat zibil Iparraldetik kanporatzea agindu zuen konbentzioak, alegia, Sara, Azkain eta Itsaso herrietako biztanleria. Landetako zenbait elizetan kontzentratu zituzten non, familiak bereizita eta muturreko egoerei aurre eginik, 1.600 lagun baino gehiago hil ziren²⁴.

1794ko udaberrietik aurrera, hamaika triskantza gertatu dira ipar eta hego euskal herrietan. Nagusiki gerra garaian. Izan ere, alderatzen badugu 1589 eta 1789 bitarteko 200 urteko epea eta 1789 eta 1989 bitartekoa, aldea nabaria da. 1589tik 1789ra, momentu historiko bortitzak bizi izan ziren Euskal herrian, hala nola, 1631 eta 1634 bitarteko gatzaren matxinada, 1717-18an aduanak kostaldera eraman nahi izateak sortu zuen matxinada, 1731an Irunen konskripzioaren ezarpenak sortutakoa, 1739ko Azpeitiako matxinada eta, 1766ko matxinada. Garai honetan matxinadarik odoltsuenerarikoa Frantziako Luis XIV.ak zuberotarren eskubide politiko-ekonomikoak indargabetezko neurrien kontra gauzaturakoa dugu. Matalas buru, 1661ean Zuberoako matxinadaren eraginez, koroaren gehiegikeriaren aurrean paratu zen herria. 1789 eta 1989 bitarte, konbentzio gerra, frantziar iraultza, zamakolada, gerra napoleonikoak, hirurteko konstituzionala, lehenengo gerra karlista, gerrarteko altxamenduak eta estatu kolpeak, bigarren gerra karlista, gerraren osteko errepresioa eta erbestaldiak (1876-1881), Alfonso XIII.ren diktadura, gamazada, lehen mundu gerra, 1936ko gerra eta errepresioa, bigarren mundu gerra eta okupazioa, 40 urteko diktadura eta terrorismoa jaso du Euskal Herriak. Zazpi gerra latz (30 urte guztira), lau iraultza odoltsu (16 urte), diktaturak (50 urtetik gora) eta legez kanpoko aro a-konstituzionalak (berez kontaezinak), terrorismoa (40 urte) eta beste hamaika tankerako biolentziak. Ehunka mila herritarren heriotza, espetxeratze eta erbestea dugu azken berrehun urteko saldoa. Garbi da, zerbait aldatu zen 1789an.

Azpimarratu behar, hainbat kasutan errepresioa biktimen gizataldeari zuzendutakoa dela, alegia, errepresioa gizabanakoei azken hauek “egindakoarengatik” bideratu ordez maiz gizatalde baten parte edo aldeko “izateagatik” gauzatu zen.

Hala ere, kultura nazio baten izatearen bizkarrezurra izanik, genozidio kulturala nonahikoa dugu edozein garaiko eta irismeneko genozidio kanpaina batean. Kultura arloan, agente genozidak gizataldearen kultura suntsitzeko neurriak hartzen ditu, hots, hizkuntza, ohiturak, azturak eta tradizioak suntsitu, mugatu edo debekatu bai eta herri horren kronika historikoa berridatzi. Herriaren ezaugarri folklorikoak kolokan jarri, hala nola mitologia, erlijioa eta unibertso sinbolikoa, bai eta adierazpen artistikoak, ahozko eta idatzizko literatura, musika, pintura eta eskultura, kirolak eta, oro har, herri jakin baten kultur adierazpenak mugatzen, eragozten eta galarazten duten zeinbat neurri hartu. Era berean, agentearen gizataldeko unibertso kulturala inposatzen da, legegintza arloan, arlo fiskalean, soziologikoan, kulturean, edo politikokoan hainbat neurri abiaraziz²⁵. Konkretuki, Euskal Herrian 1789tik aurrera indarrean jarritako neurrien artean hauek ditugu kultura arloan nagusi:

1. Euskararen erabilera eskoletan, estatu administrazioan eta justizia administrazioan debekatu eta euskal hizkuntza publikoki zein pribatuan hitz egiteko askatasuna mugatu.
2. Euskaraz idatzitako lanak edota euskal gaiei buruzko lanak inprimatzeko debekua ezarri eta, era berean, inprimatutako lanen erreketeta eta suntsipen sistematikoa.
3. Agente genozidaren hizkuntzaren ezarpena bertako hizkuntza nazionalaren ordez.
4. Derrigorrezko hezkuntza orokorra agentearen taldeko ideologia eta erlijio ofizialetan.
5. “Pentsamolde nazional independentea gara dezaken” humanitateetan edota arte liberalen alorrean ikasketak debekatzea edo murriztea.
6. Komunikabide artistikoaren bidez edota ekintza kulturalen bitartez jite nazionalaren adierazpenak saihesteko, kultur jarduerak gobernuaren kontrolpean jarri.
7. Era berean, kultura eta arte balioen inspirazioa gabetezko, jarduera sortzaileen erregimentazioa kultura eta arte eremuetan.

²³ *Recueil de lois et règlements concernant l'instruction publique, depuis l'édit de Henri IV en 1598 jusqu'à ce jour*, Brunot-Labbe, Paris, 1814, vol. 1, pp. 22-26.

²⁴ Goyhenetxe, Eukeni, *Historia de Iparralde: Desde los orígenes a nuestros días*, Txertoa, Donostia, 1985, p. 84. Ikusi ere, Letamendia, Francisco, *Los vascos: Ayer, hoy y mañana*, Mugalde, Hendaia, 1977, p. 102. Eta, Bazan, Iñaki et al., *De Túbal a Aitor: Historia de Vasconia*, La Esfera de los Libros, Madrid, 2002, p. 359.


²⁵ Irujo, Xabier, *Genocidio en Euskal Herria*, Nabarralde, Iruñea, 2015, pp. 34-37.

8. Kultura edo erlijio arloetan balio artistikoa edo sinbolikoa duten arte-lanen eta monumentuen suntsiketa eta horien ordezkari agentearen taldeko kultura edo ideologia menderatzailearen ispilu direnak esposatu edo eraiki.
9. Biktimen gizataldeko haurrak agentearen gizataldeko familia edo etxetara lekualdatu edo agentearen taldeak kontrolatutako berrezitze zentruetara eraman bertan talde zapaltzailearen balio ideologikoetan eta kulturaletan hezteko; halaber, zapaldutako gizataldearen kultura edo ideologia adierazten duten pertsonen errepresioa, erailketa, espetxeratzea, edo erbeste masiboa²⁶.

Neurri guzti hauek aipatu zituen Rapahel Lemkinek 1944ko liburuan genozidio kulturalaren alorrean eta puntuz puntuko adibideak ez dira azken 226 urte hauetan urriak euskal herrietan.

Goian aipatutako neurri guztien artean zapaldutako gizataldearen hizkuntza nazionalaren erabilera eskoletan, estatu administrazioan eta justizia administrazioan debekatzea, hizkuntza publikoki zein pribatuan hitz egiteko askatasuna mugatzea eta, era berean, agente genozidaren hizkuntzaren ezartzea dugu genozidio kulturalaren estrategiarik arruntenetarikoa.

1788an Henri Grégoire abadeak adierazi zuen *patois* edo jargoi guztien suntsipena garrantzizkoa zela “ilustrazioaren ideiak zabaldu ahal izateko, erlijioaren ezagutza garbiagoa lortzeko, legediaren aplikazio errazagoa bermatzeko, biztanleen zoriona sustatzeko eta lasaitasun politikoa bermatzeko²⁷”. Bi urte geroago, Grégoriek zabaldu zuen errepublikako hego-mendebaldean gertatutako matxinada kontrairaultzailearen arrazoi nagusia herritarren hizkuntza nazionala zela. Ideia hau Antoine de Rivarol egile frantziarraren eskutik hartua zuen Grégoriek. Rivarolek 1783an argitara emandako *Sur l'universalité de la langue française* diskurtsoaren arabera, frantsesa hizkuntza unibertsala zen bere “jenio” edo “barne izpiritua”-rengatik. Alegia, frantsesez hitz egiteak argitasun, zorrotasun, adierazkortasun, arrazionaltasun eta gaitasun berezia eskaintzen zion hiztunari. Hitz batean, frantsesa zen ilustrazioaren hizkuntza eta frantses hiztuna ilustrazioaren ideien igorle bakarra; hare gehiago, egilearen arabera ezinezkoa zen ilustratua, sofistikatua eta ongi hezia izan, frantsesez hitz egin gabe. Egilearen arabera baziren goi mailako eta behe mailako hizkuntzak eta frantsesa goi mailako eta kultura goreneko hizkuntza zen. Ideia oso zabaldua zegoen XVIII. mendeko egileren artean, hizkuntza desberdinetan eta irizpide ezberdinez baliatuz euren gizataldeko hizkuntza nazionalaren egokitasuna eta besteekiko nagusitasuna defendatu zutenak.



Henri Grégoire abatearen errepubliako hizkuntza zatarrak birrintzearen behararen inguruko txostena. 1794ko ekainaren 6ko txosten hau *la terreur linguistique* garaian

²⁶ Lemkin, Rapahel, *Axis Rule in Occupied Europe: Laws of Occupation, Analysis of Government, Proposals for Redress*, Carnegie Endowment for International Peace, Washington, D.C., 1944, pp. 84-85.

²⁷ Grégoire, Henri-Baptiste, *Essai sur la régénération physique, morale et politique des Juifs*, La Société Royale des Sciences et des Arts de Metz, Metz, 1789, pp. 160-161. Ikusi ere, Goldstein Sepinwall, Alyssa, *The Abbé Grégoire and the French Revolution: the Making of Modern Universalism*, University of California Press, Berkeley, 2005, p. 96.

konbentzioak hartutako neurri juridikoen arteko bat dugu.

Bere hipotesia bermatzeko, 1790eko abuztuaren 13an galdeketa luze bat zabaldu zuen Grégoirek zenbait pertsonen artean errepublikako toki ezberdinetan hizkuntza ezberdinen estatusa aztertzeko. Inkesta hartzaileei dagokionez, gehien bat apaizak izan ziren, bai eta *Sociétés des amis de la constitution* delako talde jakobinoetako kideak, legegizonak eta irakasleak²⁸. Funtsean Europako lehenengo inkesta soziolinguistikoa izan zen hura. Hizkuntza nazionalen izaerari, ezaugarriari, iraunkortasunari eta erauzketari buruz 43 galdera bildu zituen Grégoirek. Nagusiki 29. eta 30. galderak *jargon* delako behe mailako hizkuntza hauek errausteko estrategiei buruzkoak dira. Konkretuki 29. galderan “hizkuntza zatar hauek desagertarazteko” zein izango ziren suntsiketaren ondorioak erlijio eta politika mailan galdetzen zuen Grégoirek. Hizkuntza horiek ezabatzean gizartearen ilustrazio maila handiagoa izango dela zabaldu zuen inplizituki egileak, jargoi hauen hiztunak hainbat prejuizio eta konplexutan kateatuta mantentzen baitzituzten hizkuntza horiek. 30. galderaren bitartez hizkuntza hauek desagertarazteko bideak arakutzen saiatu zen egilea. Grégoiren arabera hizkuntza bat desagertarazteko modurik eraginkorrena estatuko administrazioari maila guztietan hizkuntza eredu bakarra ezartzea zen, bai eta hezkuntza sistema elebakarra eta derrigorrezkoa sortzea²⁹.

Bertrand de Barèrek lege bilakatu zuen Grégoiren prejuizioak konbentziora. Edozein genozidio kanpaina baten harira, hizkuntzak desagertaraztea ez zen posibilitate bat, behar bat baizik, behar patriotikoa eta zibilizatzailea. Alegia, *bona fides* eta biztanleriaren onerako hartutako neurria zen hura. 1793ko urriaren 21ean (*30 vendémiaire an 2*) oinarritzko hezkuntza frantsesez bideratzearen derrigortasuna dekretuz ezarri zuen lehen aldiz konbentzioak³⁰. “Errepublikako bazter guztietan frantsesez besterik ez daitezela klaserik eman” lelopean³¹, Charles-Gilbert Romme konbentzioko hezkuntza publikoko batzordeko kideak aurkeztu zuen urriaren 28an Parisko asanbladaren aitzinean urriaren 21eko dekretuaren inguruko zenbait artikulua osagarri, hezkuntza publikoko dekretua osatuko zituzten oinarri ideologikoak borobilduz³². Seigarren oinarriaren arabera, frantziar hezkuntza sistema publikoaren lehen helburua “epe labur batean frantsesa errepublikako bazter guztietako familien hizkuntza bilakatzea” zen³³. Romme diputatuaren oinarriari jarraiki, dekretuaren lehen artikulua hezkuntza sistemaren helburua errepublikar tradizioak, aberriarekiko maitasuna eta lanarekiko zaletasuna ikaslegoari ezartzea zen. Ikasleen frantsesez hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko ikastearen beharra ezarri zuen hirugarren artikulua³⁴. Hau da, beste hizkuntza nazional guztiak baztertuz, frantsesa ikasgai gisa eta hizkuntza beikular gisa ezarri zen dekretuz errepublikako hezkuntza sisteman *la terreur linguistique* (1793-1794) testuinguru politiko eta juridikoan.

Azkenik, 1794ko maiatzean konbentzioaren asanbladaren aurrean “hizkuntza nazio baten genioaren isla izaki” frantsesa ezik errepublikan hitz egiten ziren bestelako hizkuntza guztiak “sintaxirik gabeko jerga pisutsu eta baldarrak” zirela defendatu zuen Grégoirek³⁵. Eta konbentzioak aho batez onartu zuen gramatika eta hiztegi frantses berri bat sortzearen beharra, eta errepublikako hizkuntza berriari “frantses” izen ofiziala eman zitzaion bai eta “langue de la liberté” titulu politikoa.

Hortik aurrera, lehenik frantsesa Iparraldean eta ostera gaztelera Hegoaldean bi estatu hauen hezkuntza sistemetako hizkuntza ofizialak bihurtu ziren. Ez zen beste inongo hizkuntzaren erabilera onartuko eskoletan. Euskaraz edota frantsesa ez zen beste edozein hizkuntza batean erakasten zuten irakasleek purgatu zituzten eta azken hauen ordezkari gorenaren printzipio ideologikoei leialak eta estatuaren hizkuntzan erakatsiko zuten irakasleak ezarri. Oro har, frantsesa eta gaztelera bihurtu ziren bi estatu hauen hezkuntza sistemetako hizkuntza beikular eksklusiboak, eta sistema bera osatu eta egituratu zen frantziar eta espainiar balore kultural eta ideologikoak goraipatzeko, euskal baloreak erabat alde batera utzita. 2015ean ere Nafarroako hegoaldean eta Iparraldean estatuko hizkuntza ofizialak jarraitzen du izaten

²⁸ Michel de Certeau, Michel de; Julia, Dominique; Revel, Jacques, *Une politique de la langue. La Révolution française et les patois. L'enquête de Grégoire*, Gallimard, Paris, 2002, p. 32.

²⁹ Irujo, Xabier; Urrutia, Iñigo, *Historia jurídica de la lengua vasca (1789-2009)*, IVAP-HAEE / Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbao, 2014, pp. 138-145.

³⁰ *Décret relatif à l'organisation de l'instruction publique et à la distribution des premières écoles dans les communes*, de 21 de octobre de 1793 (*30 vendémiaire an II*).

³¹ *Dans toutes les parties de la République, l'instruction ne se fait qu'en langue français*. Mr. Rommek konbentziora aurkeztutako heziketa publikoko dekretuaren seigarren oinarria. *Gazette Nationale ou Le Moniteur Universel*, No. 37, Le 7 du 2^e mois, l'an 2^e de la Rép. Fr. (Lundi 28 Octobre 1793, vieux style), 1793, astelehena, urriak 28, 3^e serie, vol. 5, p. 4. Ikusi ere, *Réimpression de l'ancien Moniteur: seule histoire authentique et inaltérée de la révolution française depuis la réunion des États-généraux jusqu'au Consulat (mai 1789-novembre 1799)*, Henri Plon, Paris, 1860, vol. 18, p. 272.

³² *Décret relatif au placement des premières écoles du 7 brumaire an 2 (28 octobre 1793) y Articles additionnels sur les écoles primaires*. Ibid.

³³ *L'enseignement public est partout dirigé de manière qu'un des ses premiers bienfaits soit que la langue française devienne en peu de temps la langue familière de toutes les parties de la république*. Ibid.

³⁴ *Ils apprennent à parler, lire, écrire la langue française*. En, *Collection complète des lois, décrets, ordonnances, règlements, et avis du conseil-d'état*, A. Guyot et Scribe, Paris, 1834, vol. 6, pp. 242-243.

³⁵ Grégoire, Henri-Baptiste, *Rapports de Henri Grégoire, ancien évêque de Blois, sur la bibliographie, la destruction des patois et les excès du vandalisme, faits à la convention du 22 germinal an 2 au 24 frimaire an III*, A. Massif/Delaroque, Caen & Paris, 1867. Pp. 17-18.

hezkuntza sistemako hizkuntza bakarra. Izan ere, hezkuntza sistema da genozidio kanpaina baten zehar-lerro nagusia eta nazio bat desagertarazteko tresnarik eraginkorrena³⁶.

Bertrand Barère de Vieuzac agente genozida kanonikoak (*l'Anacréon de la guillotine ezizenez ezaguna*) bazekien nazio bat txikitzea plangintza eta antolakuntza handia behar zuen eragiketa konplexua, zaila eta delikatuia zela. Errepublikako nazioak suntsitzeak nazio hauek deskonposatzea, banatzea eta desagertarazi arte frantziar kulturaren baitan diluitzea suposatzen zuen eta horrek gizatalde hauen gizabanakoak zigortzea, baztertzea eta, azken finean, errepublikaren izenean errepresaliatzea eskatzen zuen; honek ehunka mila herritarren heriotza erakarriko zuen eta edozein tankerako erregistro publiko zein pribatuetatik biktimen izenak ezabatzea; nazio hauen lider sozialak, politikoak eta kulturalak eta euren jarraitzaileek epaitu, espetxeratu eta erailtzea (elitizio); zehaztugabeko zibil kopuru bat kontzentratzea eta erbesteratzea; lokarri juridikorik gabeko eta funtzioak betetzeko mugarik gabeko gobernu iraultzaile exekutiboa ezartzea; gerra egoera ezartzea eta, ondorioz, herritarren eskubide zibil, ekonomiko eta politikoei hainbat muga ezartzea, besteak beste, adierazpen askatasunari, berdintasunerako eskubideari, askatasunari edota, greba eskubideari; prozedurazko eskubideak erabat okertzea; errepublikako nazioen oinarritzko existentzia ekonomikoa suntsitzea; biktimak desjabetu ondoren, nazio hauek jaioterri ezberdinetako herritarrak mobilizatzea eta bahitutako lur sailen eta bestelako ondasunen jabetza kudeatzea; inprimatutako edozein material-mota baten argitalpena, banaketa edota salmenta mugatzea; zentsura eta propaganda sistema sendo bat inposatzea; bertako legeak eta justizia sistema indargabetzea eta lege, epaitegi eta justizia sistema iraultzailea inposatzea; sistema soziala birrintzea eta kode zibil berri bat ezartzea; bertako leku izenak ezabatuz eta aurreko mugak birrinduz, lurralde-mugen mapa berri bat berrantolatzea eta inposatzea; administrazioa purgatu maila guztietan eta gobernu zentralaren menpekora den administrazio zentralizatu berri bat inposatzea; errola berri bat egin eta purgen ondorioz kaleratutakoak erregimeneko ildoko hautagaiekin aurrekoek hutsik utzitako lanpostuak betetzea; alderdi, elkarte, sindikatuak edo beste edozein motako elkarte sozio-politikoak, kulturalak edo erlijiosoak debekatzea eta agentearen ideologiaren ildoko erakunde sateliteak politikoki bultzatu, ekonomikoki sustatu eta kulturalki goratu, alegia, pentsamendu bakarra promozionatu; erregimeneko ildoko herritarrei pribilegio politiko, ekonomiko eta sozialak ematea, nagusiki bertako biztanleen artean; ekintza sinboliko publikoen bidez erregimeneko ildoko unibertso sinbolikoaren presentzia orokortzea (jaiak, efemerideak, leloak, kantuak, koloreak, monumentuak...)... eta beste hainbeste koordinatutako jarduera bideratzea³⁷.

Nolanahi ere, bazekien ere Barèrek genozidio kanpaina eraginkor batek funtsean kultura eta erlijio arloetan egin behar zuela indar, aurreko erritoak eta praktika kulturalak debekatuz edo mugatuz eta agentearen erritua eta praktika kulturalak neurri juridiko berrien bitartez ezarriz, ekonomikoki eta sozialki sutatuz eta indarkeriaz inposatuz; kultura eta erlijio arloko ekintza herritarrak eta hauek antolatzen dutenen atxilotzea eta fedea, afiliazioa edo partaide izatea desagertarazi arte mugatzea; monumentuak, sinboloak, dokumentu historikoak eta balio erlijioso-kulturala duten objektuak sistematikoki suntsitzea; toponimia eta erregistro guztietako izen publikoak agentearen hizkuntzan ezarri edota euren ereduera moldatu; eta nagusiki, Barèrek jakin bazekien errepublikako nazioen suntsitzea edo asimilazioa belaunaldi bat baino gehiagoko lana zela eta, hortaz, ezinbestekoa zela gizarte eta kultura ezagutza eta balioen transmititzeko mekanismoak kontrolatzea, hau da, beharrezkoa zela hezkuntza sistema publiko zentralizatu, elebakarra eta homoginoa antolatzea “herritarrak fabrikatzeko”, sistema bakun honek biztanle uniformeak eta asimilatutako ekoiztuko baitzitu. Grégoiren hitzetan hezkuntza sistema egoki honetako eskolak “giza gogoko ospitaleak” (*hôpitaux de l'esprit humain*)³⁸ izango ziren, non gazteenak aurreko hizkuntzatan euren gurasoengandik jasotako prejuizioak eta sineskeriak betiko ahaztuko zituzten, euren gogoak sendatuz. Barèren esanetan, “martitzen eskolak” (*École de Mars*)³⁹ izango ziren hauek, egungo haurrak geroko soldadu frantziarrak bihurtuko zituenak.

XIX. mendean zehar eta XX mendean neurri hauek indarra hartzen jarraitu zuten eta, 1936ko uztailaren ostean estatu berria indarrean jarri zenean, Francok ez zuen ezer asmatu, gutxi berri baitzen asmatzerik.

³⁶ Irujo, Xabier; Urrutia, Iñigo, *Historia jurídica de la lengua vasca (1789-2009)*, IVAP-HAEE / Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbao, 2014, pp. 561-575.

³⁷ Irujo, Xabier, *Genocidio en Euskal Herria*, Nabarraide, Iruñea, 2015, pp. 279-280.

³⁸ Ray, Alexandre (Ed.), *Réimpression de l'ancien Moniteur: seule histoire authentique et inaltérée de la révolution française depuis la réunion des États-généraux jusqu'au Consulat (mai 1789-novembre 1799)*, Henri Plon, Paris, 1860, vol. 17, p. 360.

³⁹ *Rapport fait au nom du comité de salut public, 2 prairial [1 June 1794], sur l'éducation révolutionnaire, républicaine et militaire; et décret sur la formation de l'École de Mars*; par Barère.

Referencias Bibliográficas

- Babeuf, Gracchus, *Du Système de dépopulation, ou la vie et les crimes de Carrier, son procès et celui du Comité révolutionnaire de Nantes*, Imprimerie de Franklin, Paris, 1794.
- Bassiouni, M. Cherif, *Crimes against Humanity in International Criminal Law*, Kluwer Law International, The Hague, 1999.
- Benet, Joseph, *L'intent franquista de genocidi cultural contra Catalunya*, Publicacions de l'abadia de Montserrat, Montserrat, 1995.
- Code civil des Français. Edition originale et seule officielle*, Imprimerie de la République, Paris, 1804.
- Crétineau-Joly, Jacques A. M., *Histoire de la Vendée militaire*, Hivert Librairie, Paris, 1840.
- Gazette Nationale ou Le Moniteur Universel*, No. 129, nonidi, 9 pluviôse, l'an 2^e (Mardi 28 janvier 1794, vieux style), asteartea, urtarrilak 28, 1794, 3^a serie, vol. 6, pp. 5-8.
- Gazette Nationale ou Le Moniteur Universel*, No. 259, vendredi, 16 septembre 1791, l'an 3^{eme}, ostirala, irailak 16, 1791, 1^a seriea, vol. 9, suplementua, pp. 1-13.
- Goldstein Sepinwall, Alyssa, *The Abbé Grégoire and the French Revolution: the Making of Modern Universalism*, University of California Press, Berkeley, 2005.
- Goyhenetxe, Eukeni, *Historia de Iparralde: Desde los orígenes a nuestros días*, Txertoa, Donostia, 1985.
- Grégoire, Henri-Baptiste, *Essai sur la régénération physique, morale et politique des Juifs*, La Société Royale des Sciences et des Arts de Metz, Metz, 1789.
- Henningsen, Charles F., *Doce meses de campaña con Zumalakarregi durante la guerra en Navarra y Provincias Vascongadas / The Most Striking Events of a Twelvemonth's Campaign with Zumalacarregui in Navarre and the Basque Provinces*, Zumalakarregi Museoa, Ormaiztegui, 2015.
- Irujo, Xabier, *Genocidio en Euskal Herria (1936-1945)*, Nabarralde, Iruñea, 2015.
- Irujo, Xabier; Urrutia, Iñigo, *Historia jurídica de la lengua vasca (1789-2009)*, IVAP-HAEE / Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbao, 2014.
- Jacobs, Steven L. (Ed.), *Lemkin on Genocide*, Lexington Books, Plymouth, 2014.
- Kuper, Leo, *The Prevention of Genocide*, Yale University Press, New Haven, 1985.
- Launay, Robert, *Barère de Vieuzac (l'anacréon de la guillotine)*, J. Tallandier, Paris, 1929.
- Lemkin, Raphael, *Axis Rule in Occupied Europe: Laws of Occupation, Analysis of Government, Proposals for Redress*, Carnegie Endowment for International Peace, Washington, D.C., 1944.
- Levene, Mark, *Genocide in the Age of the Nation State. The Meaning of Genocide*, I. B. Tauris, 2008. Vol. 1.
- Martí, José J., *Poder político y educación: el control de la enseñanza*, Universitat de València, Valencia, 2002.
- Michaud, Louis G., *Biographie des hommes vivants ou Histoire par ordre alphabétique de la vie publique de tous les hommes qui se sont fait remarquer par leurs actions ou leurs écrits*, L. G. Michaud, Paris, 1817.
- Michel de Certeau, Michel de; Julia, Dominique; Revel, Jacques, *Une politique de la langue. La Révolution française et les patois. L'enquête de Grégoire*, Gallimard, Paris, 2002.
- Montero Díaz, Julio, *Constituciones y códigos políticos españoles, 1808-1978*, Ariel, Barcelona, 1998.
- Ray, Alexandre (Ed.), *Réimpression de l'ancien Moniteur: seule histoire authentique et inaltérée de la révolution française depuis la réunion des États-généraux jusqu'au Consulat (mai 1789-novembre 1799)*, Henri Plon, Paris, 1860, vol. 17.
- Recueil de lois et réglemens concernant l'instruction publique, depuis l'edit de Henri IV en 1598 jusqu'à ce jour*, Brunot-Labbe, Paris, 1814, vol. 1.
- Seventeenth Annual Report of the Board of Indian Commissioners to the Secretary of the Interior*, Government Printing Office, Washington, 1886.
- Tableau de la Constitution du Royaume de Navarre et de ses rapports avec la France. Imprimé par ordre des États Généraux de Navarre*, Desaint, Paris, 1789.
- The Gospel in All Lands. An Illustrated Monthly Missionary Journal*, Methodist Episcopal Church Missionary Society, 1885, vol. 11.